Dicha Sentencia del Tribunal Supremo falló en el sentido de que la finca era propiedad indivisa de los 30 partícipes, reconociendo el derecho de pastos durante determinados meses de todos los vecinos de Burguete.

Por tanto, a fecha de hoy, resulta indiscutible que la mencionada finca tiene carácter particular, no comunal, con la excepción del derecho de pastos reconocido, sin que proceda ahora la posibilidad de discutir si los 30 partícipes adquirieron el terreno a título particular o en nombre del Ayuntamiento, discusión ya finalizada, casada y, por tanto, resuelta de forma definitiva por el Tribunal Supremo en la Sentencia mencionada.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Auritz-Burguete no dispone, actualmente, de ninguna posibilidad jurídica, para poder instar reclamación judicial alguna tendente al reconocimiento como comunal de la finca Arrobi, finca sobre la que, no obstante, mantiene el derecho de los pastos en determinados meses de todos los vecinos de Burguete.”

El Ayuntamiento se da por enterado.

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad tratar por urgencia el siguiente punto no incluido en el Orden del Día

PLAN DESEMPLEADOS

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad autorizar al Sr. Alcalde D Iñaki Cilveti Lecumberri a aprobar el plan de realización de obras mediante la contratación de desempleados en el año 2.006.

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad tratar por urgencia el siguiente punto no incluido en el Orden del Día.

CONVENIO CON LA ASOCIACION CULTURAL GARAITZEKO-ASI

Informa el Sr. Alcalde de los contactos con la asociación Garaitzeko-Asi quien desarrolla una notable labor cultural en Burguete y de la necesidad de formalizar coordinar y organizar las actividades de ésta Asociación y las del Ayuntamiento mediante la firma de un convenio.

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad autorizar al Sr. Alcalde a firmar el correspondiente convenio de colaboración con la Asociación Garaitzeko-Asi.

Y sin mas asuntos que tratar se levantó la sesión de lo que doy fe

Auritzen, 2005eko abenduaren 30ean, arratsaldeko 14:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Aritza Dufur Ynchausti j., Imanol Dufur Ynchausti j., eta Itziar Echeverria Garcia a. Alkatea, Iñaki Cilveti Lecumberri j. bilkuraburu izan zen eta idazkaria Pedro M. Cenoz Iragui j.

1.- 2005eko EKAINAREN 6tik ABENDUAREN 28a arte ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK

Alkateak 2005eko ekainaren 6tik abenduaren 28a arte eman dituen ebazpenak jakinarazi ditu. Udala jakinaren gainean gelditu da.

2.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2005eko maiatzaren 14an, abuztuaren 11n, irailaren 8an, urriaren 14an eta azaroaren 10ean egindako bilkuren aktak onestea.

3.- LURZATIEN BATERAKUNTZA. HERRILURRETAKO DEPARTAMENDUAK ALEGAZIOEI BURUZ EGIN DUEN TXOSTENA. KASUAN KASUKO ERABAKIAK HARTZEA.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko jarraitu behar den prozeduraren arabera, Aurizko Udalak bere herrilurren zerrenda eta kartografia jendaurrean paratu zituen. Alegazioak aurkezteko epea akituta eta bizilagun interesatuek bere alegazioak aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak Herrilurretako Departamendura igorri ziren, zegokien txostena egin zezaten. Txostena jaso ondoren, Aurizko Udalak alegazio horiek onartu edo ez erabaki behar du, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Alberto Espelosin Loizu jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 6. Poligonoko 70. lurzati berea dela erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

ALBERTO ESPELOSÍN LOIZU JK.

ESKATZEN DU: Errotaldean duen lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	<i>KATASTRO ZAHARRA</i>	<i>EGUNGO KATASTROA</i>	<i>ESKRITURAK</i>
<i>POLIGONOA</i>	8	6	
<i>LURZATIA</i>	42	126	
<i>AZALERA (M2)</i>	18.200	17.522	18281

TXOSTENA

Eskaeran aipatzen den lurzati (6. Poligonoko 70 zk. duena), katastro zaharreko 8. Poligonoko 40. Zk. duen herri-lurzatiaren zati bat da.

Egungo katastroan azalera gutxiago duela agertzea errepidea zabaltzeagatik izan daiteke..

SITNAko argazkian ikus daiteke eskatzen den zatiko landaredia lurzatiaren gainontzeko zatian ikusten dena bezalakoa ez dela.

PROPOSATZEN DA: eskaera EZ ONARTZEA.

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioen moduan.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Alberto Espelosin Loizu jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 5. Poligonoan duen 167. Lurzatiak katastroan agertzen den baino 133 metro karratu gehiago dituela erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

ALBERTO ESPELOSÍN LOIZU JK.

ESKATZEN DU: Arretxeko Saron duen lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		5	
LURZATIA		167	
AZALERA. (M2)		31.704	

TXOSTENA

Jabetzakoa dela eskatzen den lurzatiak, katastroko 5 poligonoko 166 lurzatiaren C eta D azpilurzatiaren parte bat hartzen du eta, egun, Aurizko Herrilurra bezala agertzen da katastroan, katastro zaharrean gertatzen zen bezala.

SITNA-ko argazkian ikus daiteke C azpilurzati osoa bezala agertzen dela, hau da, eskatutako zatia eta baratzerako erabiltzen ez dena.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioen moduan.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Juan Fuertes Senosiain ak. egin duen erreklamazioa ikusirik, 5. Poligonoan duen 170. Lurzatiak 22.079,45 metro karratu izan behar dituela erranez. Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

JUANA FUERTES SENOSIAIN AK.

ESKATZEN DU: Arretxeko Saron duen lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	<i>KATASTRO ZAHARRA</i>	<i>EGUNGO KATASTROA</i>	<i>ESKRITURAK</i>
<i>POLIGONOA</i>	10	30	21.500
<i>LURZATIA</i>	5	170	22.079
<i>AZALERA (M2)</i>			21.573

INFORME

Katastro zaharra egungoarekin alderatuz, ikus daiteke lurzatiak azalera galdu duela mendelbadetik, baina ibaiaren bazterrean azalera irabazi duela, hegoaldetik.

Honakoari erantzen zaion lurzati-agirian ikusten da lurzatiari erantsi behar zaion zatia.

PROPOSATU DA: eskaera ***ONESTE***A, herrilurra den 169 lurzatiaren zati bat aipatutako lurzatiari erantsiz.”

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori onestea, txostenean esandakoaren arabera, eta aipatutako lurzatiari 5 poligonoko 169 zk. duen lurzatiaren zatia eranstea.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Urtasun Erro anai-arrebek egin duten erreklamazioa ikusirik, 1. Poligonoan duten 23. Lurzatiak 14.752 metro karratu izan behar dituela erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

**AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA**

URTASUN ERRO ANAI-ARREBEK.

ESKATZEN DUTE: Zakarloan duten lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		1	
LURZATIA		23	
AZALERA (M2)		14.752	

TXOSTENA

SITNAko argazkian ikus daitekeenez, lurzatiaren hegoaldea zuhaiztiak mugatzen du. Katastro zaharrari dagokionez, lurzattia behar bezala dago mugatua.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.”

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Mercedes Ayneto Marco ak. egin duen erreklamazioa ikusirik, 1. Poligonoan duen 22. lurzatiak katastroan agertzen den baino azalera handiagoa izan behar duela erranez eta herrilurrarekin duen muga errebisatu behar dela eskatuz. Ikusirik Nafarroako Gobernuako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

**AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA**

MERCEDES AYNETO MARCO AK.

ESKATZEN DU: Zakarrolan duen lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
--	-----------------------------	-----------------------------	-------------------

POLIGONOA		<i>1</i>	
LURZATIA		<i>22</i>	
AZALERA (M2)		<i>17.241</i>	

TXOSTENA

Hegoaldetik lurzatiak duen muga pentzea bukatu eta zuhaitzak hasten diren tokian dago, SITNAko argazkian ikusten den moduan, eta luzera katastro zaharrean agertzen dena baino handiagoa da.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.”

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, Dorre Etxearen atzeko aldean lurzati pribatua dagoela esanez eta hori 199-2003 legegintzaldian onartu zela gehituz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuako Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: *Herrigunean dagoen lurzatiaren jabetasuna onartzea*

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		<i>5</i>	
LURZATIA		<i>268</i>	
AZALERA (M2)		<i>112</i>	

TXOSTENA

Hiri lurzorua denez, 267 lurzati Udalarena izatera pasatu da.

Dorre etxeko atzealdeko 43. Lurzatian badago 268 lurzatia, Antonio Gonzalez Saragueta jaunarena dela onetsia.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.”

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatien baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 6. Poligonoan dauden 24a eta b lurzatia herrilurra dela aipatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: *Herrigunean dagoen lurzatiaren jabetasuna onartzea*

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		6	
LURZATIA		24-27-56-33	
AZALERA (M2)			

TXOSTENA

Lau lurzati horiek hiri lurzorua kontsideratuak izan ziren eta, beraz, Udalarenak izatera pasatu dira, horregatik ez dira agertzen herrilurra bezala koloreztatuak.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.”

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatien baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik,5. Poligonoan dagoen 52 lurzatia herrilurra dela aipatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

***AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA***

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: Herrigunean dagoen lurzatiaren jabetasuna onartzea

KATASTROKO DATUAK

	<i>KATASTRO ZAHARRA</i>	<i>EGUNGO KATASTROA</i>	<i>ESKRITURAK</i>
<i>POLIGONOA</i>		5	
<i>LURZATIA</i>		52	
<i>AZALERA. (M2)</i>		196	

TXOSTENA

Herrigunean egoteagatik, baratza Udalak errebindikatu beharko luke.

PROPOSATU DA: eskaera ***EZ ONARTZEA.***

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 6. Poligonoan dagoen 140-A lurzattia jabetzakoa dela aipatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

***AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA***

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: Herrigunean dagoen lurzatiaren jabetasuna onartzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLÍGONOA		6	
LURZATIA		140	
AZALERA (M2)			

TXOSTENA

Lurraren jabetza Udalak ezagutu zuenez bere garaian, lurzoru urbanoa denez, planoetan isladatu beharko da.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 5. Poligonoan dagoen 166-B lurzattia jabetzakoa dela aipatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuako Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: *Herrigunean dagoen lurzatiaren jabetasuna onartzea*

KATASTROKO DATUAK:

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		5	
LURZATIA		166 B	
AZALERA (M2)			

TXOSTENA

Norbanako bati jabetza ezagutzeko, herrilurra denean, Udalak lur horren desafektazioa egin beharko du edo urbano bezala kalifikatu arte itxoin.

PROPOSATU DA: eskaera **EZ ONARTZEA**.

Udalak erabaki du aho batez alegazioa ez onartzea, txostenak dioenaren arabera

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 3. Poligonoan dagoen 32 lurzati bidea Arrobi elkartekoa dela aipatuz, nahiz eta jendeak hortik pasatzeko eskubidea izan, eta akats hori zuzentzea eskatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

JOSE IRIGARAI GIL JK.

ESKATZEN DU: Lurzatiaren jabetasuna onartzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		3	
LURZATIA		32	
AZALERA. (M2)			

TXOSTENA

Arrobi Elkartearen lurren errekarekin iparraldetik egiten duten mugan 3 poligonoko 32 lurzati dagoela, gaurregun Aurizko Udalaren izenean dagoena, lurzati hori Arrobi Elkartearen izenean agertu beharko litzateke katastroan.

PROPOSATU DA: eskaera **ONARTZEA** eta 3 poligonoko 32 lurzatiaren jabetza Udalarena izatetik Arrobi Elkartearena izatera pasatzea.

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. Irigarai Gil anai-arreben izenean egin duen erreklamazioa ikusirik, 1. Poligonoan duten 9 lurzati muga sasitik joan behar duela eta gaurregun dagoen tokian erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

IRIGARAI GIL ANAI-ARREBAK.

ESKATZEN DU: ZAKARROLAKO lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	<i>KATASTRO ZAHARRA</i>	<i>EGUNGO KATASTROA</i>	<i>ESKRITURAK</i>
<i>POLIGONOA</i>		<i>1</i>	
<i>LURZATIA</i>		<i>9</i>	
<i>AZALERA (M2)</i>		<i>13.737</i>	

TXOSTENA

Iparraldeko muga behar bezala seinlatua dago, SITNAko argazkian ikus daitekeenez. I.M.detik duen muga katastro zaharran zuen berbera da eta horrela izan behar du.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA”.

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Fermin Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 1. Poligonoan duen 10 lurzatiaren iparraldeko muga argazkian agertzen diren silo-bolen beste aldera eramateko, bola horiek lurzatiaren barnean geldituz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

FERMIN IRIGARAI GIL JK..

ESKATZEN DU: ZAKARROLAKO lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		1	
LURZATIA		10	
AZALERA (M2)		12.154	

TXOSTENA

SITNAko argazkiaren arabera, lurzatiak silo bolak dauden lekua hartzen du, eta, gainera baterakuntzaren ondoren katastroan baino 200 m² gehiago ematen zaio

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.”

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Fermin Irigarai Gil jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 5. Poligonoan duen 255 lurzati muga ongi jartzeko, muga hori sasitik joan beharko lukeelako eta ez sasiaren barnealdetik, argazkian agertzen den bezala.

Ikusirik Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

FERMIN IRIGARAI GIL JK..

ESKATZEN DU: LABAKIETAKO lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA	5	5	
LURZATIA	50 + 51	255	
AZALERA (M2)	3.600	4.238	

TXOSTENA:

SITNAko argazkiak zein lurzatiaren baterakuntza erakundeak dituenak begiratuta, ikus daiteke hegoaldeko muga ez dela sasiraino iristen. Hortaz gain, katastro zaharren lurzatiak zabalagoa zen egungo katastroan baino, nahiz eta azalera txikiagoa izan.

PROPOSATU DA: eskaera **ONARTZEA**, eta lurzatiaren handitzea hegoaldeko, sasiraino”.

Udalak erabaki du aho batez alegazioa onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatiaren baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk. Irigarai Gil anai-arreben izenean egin duen erreklamazioa ikusirik, 3. Poligonoko 66 lurzatiaren iparraldeko bidea jabetzakoa dela eta mendalbeko zatian herrilurra den zati bat jabetzakoa bezala jarri dela erranez. Ikusirik Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

IRIGARAI GIL ANAI-ARREBAK.

ESKATZEN DU: KIÑOETAKO lurzatiaren azalera handitzea

KATASTROKO DATUAK

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA	3	3	
LURZATIA	71+72+73+74	66	
AZALERA (M2)	63.650	65.458	

TXOSTENA:

Katastro zaharra aztertu ondoren, 40-50 hamarkadetakoa, ikus daiteke lurzati horren iparraldean bide publikoa zegoela, eta, beraz, finkatua dagoela. Mendebaldean sasitik kanpoko lurra herrilurra da eta, hortaz, kendu behar da.

PROPOSATU DA: eskaera **ONARTZEA** alde batetik, eta sasitik kanpo gelditzen den lurra kentzea.

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori neurri batean onartzea, txostenak dioenaren arabera eta mendebaldeko sasitik kanpo gelditzen den zatia kentzea.

Lurzatién baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Francisco Javier Echeverria Paris jk. egin duen erreklamazioa ikusirik, 6. Poligonoko 139 lurzattia berea dela erranez eta hori zuzentzea eskatuz. Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

FCO. JAVIER ECHEVERRIA PARIS JK.

ESKATZEN DU: MAIORLATEGIAN duen lurzatiaren jabetza onartzea.

KATASTROKO DATUAK

	<i>KATASTRO ZAHARRA</i>	<i>EGUNGO KATASTROA</i>	<i>ESKRITURAK</i>
<i>POLIGONOA</i>		6	
<i>LURZATIA</i>		139	
<i>AZALERA (M2)</i>		1.166	

TXOSTENA

Bai katastro zaharrea zein egungoan, aipatutako lurzattia herrilurra bezala agertzen da.

Titulartasuna aldatzeko, Udalak lurzatiaren desafektazioa egin beharko du edo Udalak lurzatti hori urbano bezala kalifikatu arte itxoin, orduan Udalarena izatera pasatuko baitzen.

PROPOSATU DA: eskaera EZ ONARTZEA.

Udalak erabaki du aho batez aleazio hori ez onartzea, txostenak dioenaren arabera.

Lurzatién baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk., Arrobi Elkartearen izenean, egin duen erreklamazioa ikusirik, 2. Poligonoko 10.lurzattia Elkarte horrena dela eta herrilurra erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

**AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA**

ARROBI ELKARTEA.

ESKATZEN DU: Arrobiko Bordak izeneko parajeko lurzatiaren jabetza onartzea

KATASTROKO DATUAK:

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		2	
LURZATIA		10	
AZALERA (M2)			

TXOSTENA

Aipatutako lurzattia Arrobi Elkarteko 7. Zk. duen lurzatiaren mendebaldean dago eta katastro zaharrean zein berrian herrilurra bezala agertzen da.

Arrobi Elkartearen lurzatiaren mugak hauek direla aipatzen da: mendebaldetik Aurizberriko bizilagunen pentzeak, herri horretako herrilurra eta ibaia, eta ez du aipatzen Aurizko herrilurrik.

1908an egindako Arrobiko mugaketan, aipatzen da mugarriek Elkarte honetako lurzattia mugatzen dutela eta muga ibaiaren bazterretik doala, aziendarentzako bidea dagoen tokitik salbu.

PROPOSATU DA: eskaera **ONARTZEA**, eta 2. Poligonoko 10 lurzattia Arrobi Elkartekoa izatea.

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori onartzea, txostenak diotenaren arabera.

Lurzatien baterakuntza egiteko Aurizko herrilurretako kartografi-planoak jendaurrean egon diren bitartean Jose Irigarai Gil jk., Arrobi Elkartearen izenean, egin duen erreklamazioa ikusirik, 2. Poligonoko 4.lurzatian lur gehiegi eman zaiola Elkarte horri, muga errekan baitago eta ez berriz bidean, eta horren ondorioz 2. Poligonoko 4. Lurzatiko A, B eta C azpilurzatiak herrilur bezala agerte behar direla erranez.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Departamenduko Herrilurretako Atalak egin duen txostena, ondoren transkribatzen dena:

**AURIZKO UDALEKO HERRILURREI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI
BURUZKO TXOSTENA**

ARROBI ELKARTEA.

ESKATZEN DU: Arrobiko lurzatiaren jabetza onartzea

KATASTROKO DATUAK:

	KATASTRO ZAHARRA	EGUNGO KATASTROA	ESKRITURAK
POLIGONOA		2	
LURZATIA		4	
AZALERA (M2)			

TXOSTENA

Arrobi Elkarteko eskrituretan aipatzen diren mugaketak begiratuta, ikus daiteke iparraldetik Juan de Salvatore eremutik jeisten den errekararekin egiten duela muga, Aezubitik jeisten den ibaiarekin elkartu arte. Beraz, muga hori bidetik jeitsi behar du errekaraino.

PROPOSATU DA: eskaera **ONARTZEA**, eta 2. Poligonoko 4. Lurzatia Arrobi Elkartekoa izatetik herrilurra izatera pasatzea. .

Udalak erabaki du aho batez alegazio hori onartzea, txostenak dioenaren arabera.

4.- BASO-BERRITZEAK KOARTELEKO INGURUAN

Udalak erabaki du aho batez Goardia Zibileko koartelaren inguruan egingo diren baso-berritze lanak adjudikatzea. Lan horiek Udalak onetsitako oihan jarduketan planaren barnean daude eta horretarako Ingurugiro, Lurraldearen Antolakuntza eta Etxebizitza Departamenduak diru laguntzak eman ditu Zuzendari Orokorrek emandako 1770/2.005 ebazpenaren bidez.

Erabaki da baita ere Jose Irigaray Gilek egindako proposamena aztertzea, hau da, planan aurreikusten zen koniferen ordez haritzak landatzea, eta aldeaz aurretik, udalaren aholkulariarekin eta Nafarroako Gobernuarekin mintzatzea eta alkateari ahalmena ematea behin betiko ebazpena eman eta adjudikazioa egiteko.

Modu berean erabaki da kontsulta egitea jakiteko baso berritze horiek egiteko arazorik egongo den segurtasun arrazoiengatik.

5.- AURREKONTUAREN ALDAKETAK

Idazkariak jakinarazi du beharrezkoa dela aurrekontua aldatzea eta baimena ematea Udalak Nafarroako Kutxarekin duen maileguaren hein bat kitatzeko, ezarritako ezaldia bukatu baita.

Kitapen hori gordailuzaintzan dauden fondoan bidez ordainduko da.

Udalak erabaki du aho batez 2005eko aurkontuaren ondorengo aldaketa onartzea:

Kreditu berezien gaikuntza

AURREKONTUAREN ALDAKETAK

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 011 93102	MAILEGUAREN AMORTIZAZIOA	14.359,28

ALDAKETAK GUZTIRA		14.359,28
--------------------------	--	------------------

FINANTZIAZIO ITURRIAK

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	GORDAILUZAINZAREN SOBERAKINAK GASTU OROKORRETARAKO	14.359,28

FINANTZIAZIO ITURRIAK GUZTIRA		14.359,28
--------------------------------------	--	------------------

6.- UDALETXEKO TEILATUA. PROIEKTUA

Udalak erabaki du aho batez udaletxea eta ondoko eraikinak berritzeko proiektuaren prestaketa eta zuzendaritza lanak adjudikatzea 9.700 eurotan. Lan horiek 2005-2008 toki azpiegituren hiru urteko planan sartuta daude. Modu berean erabaki da baita ere alkateari ahalmena ematea adjudikazio egiteko eman beharreko pausuak eman ditzan.

7.- BTT LAISTERKETA - APIRILAREN 30A

Alkateak jakinarazi du beharbada heldu den apirilaren 30ean BTT laisterketa bat egingo dela Auritz-Auritz; haren izena kontrabandisten ibilbidea izango litzateke eta Iparraldeko zenbait herrietako lurretan ere sartuko litzateke.

Laisterketa hau apirilaren 30ean egingo litzateke, eta apirilaren 29an eta maiatzaren 1ean ere antolaketa ekitaldiak izango lirateke eta turismoaren sustapenean lagunduko luke.

Ekitaldi honen gastuak estaltzeko laguntzaileak bilatu behako direla; horretarako Auritzko establezimenduei laguntza eskatuko zaie.

Udalak erabaki du ekimena onartzea eta alkateari ahalmena ematea horren antolaketaz arduratzeko.

8.- BESTERIK:

1.- FIP Plana, ereduaren aldaketa.

Alkateak jakinarazi du Urtxintxa Formakuntza zentroa Europako arautegi berrira egokitu behar dela eta horretarako homologazio neurriak hartu behar direla

Udala jakinaren gainean gelditu da.

2.- Kanaleburuako etxebizitzei buruzko bandoa.. APE (adostutako preziodun etxebizitza)

Alkateak jakinarazi du zenbati gestio egin dituela eta Aurizko garapena sustatzeko etxebizitzak eraikitzeke dauden aukerei buruzko informazio eman du. Jakinarazi du baita ere laister bando informagarria argitaratuko dela eta, hori egin baino lehen, adostutako preziodun etxebizitzei buruzko arautegia atera beharko dela, dirudienez etxebizitza mota hori baita egokiena Auritzerako.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

3.- Kalitate eta modernizazio planaren deialdia.

Alkateak jakinarazi du modernizazio planaren barnean dirulaguntzak ematen ditela eta horiek eskatuko dituela, legegintzaldi honetan Udala modernizatzeko egin diren ahaleginei jarraikiz eta aipatu du birusen aurkako sistema jartzeko eskaera egingo dela, hala nola jendearen harrera egiteko hobekuntzak 012 zerbituzaren bidez eta baita antolaketa ikerketa bat ere.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

4.- I Nafarroako Landa Garapenaren Biltzarra

Alkateak jakinarazi du *I Nafarroako Landa Garapenaren Biltzarra* ospatu dela Aurizko Kultur Etxean. Biltzar horrek arrakasta handia izan zuela eta partehartzaileei asko gustatu zitzaizkiela Kultur Etxea, herria eta garatzen ari garen proiektuak.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

5.- Administrazioen modernizazio eta kalitateari buruzko jardunaldia

Alkateak jakinarazi du Toki Administrazioaren Departamenduak modernizazio eta kalitateari buruzko Jardunaldia antolatu zuela Aurizko Kultur Etxean eta horretan Nafarroako ehun baino gehiago alkate eta idazkarik parte hartu zutela eta mota horretako jardunaldiak Auritz bezalako herri txiki batean antolatzen diren lehenengo aldia izan zela.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

6.- Eskualdeko errepideei buruzko bilera

Alkateak jakinarazi du zenbait bilera egin dituela eskualdeko beste Udalekin autobideari buruz mintzatzeko eta uste dutela beharrezkoa dela bilera bat egitea Nafarroako Gobernuko ordezkariekin, Leia Erakundeko ordezkariekin eta Nafarroako Gobernuko teknikariekin jendeari informazioa emateko eta jendeak iritzi propioa izateko.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

7.- Medialdeko Legea

Alkateak jakinarazi du beharrezkoa dela Mendialdeko Lege bat egitea mendialdean dauden arazoak ongi aztertu ondoren horien konponbideak errezteko..

Udala jakinaren gainean gelditu da.

8.- Alkorta Etxeko Hotela

Alkateak jakinarazi du Alkorta Etxea erosi dutela hotal bat egiteko eta Etxenike S.M.-ak ere hotel bat egin nahi duenez, harremanetan jarri dituela biak haien artean mintzatzeko.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

9.- Mugaz bi aldetako bilera

Alkateak jakinarazi du Urepel egin zen Batzarraren ondoren, beste bilera bat egin dela proiektuak aurkezteko eta Aurizko Udalak BTT Laisterketa aurkeztu duela.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

10.- Mentor Formakuntza Gela. Mantenimendua. Kudeaketa.

Alkateak jakinarazi du adostasun batera iritsi dela eskualdeko Udalekin Mentor Formakuntza Gela kudeatzeko eta Orozko Udalak orain ez duela baietza eman ez baitago ados gastuen banaketarekin; Orozko Udalak ordainduko ez balu gainontzeko udalen artean ordainduko luketela hari dagokiona, eta, bestela, Aurizko Udalak.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

11.- Hirigintza Planaren iradokizunak.

Alkateak jakinarazi du Udal Planaren Aurrerapenari egindako iradokinzei buruzko edukia eta hura prestatu duen taldeak horien gainean egin duen txostena.

Udalak erabaki du aho batez Udal Planari buruz iradokizunak aurkeztu dituzten guztiei jakinarazpen bat igorriko zaiela jarritako harreta eta parte hartzea eskertuz eta erranez Udalak beren iradokizunak kontuan hartuko dituela Udal Plana idaztean.

Jakinazpen horretan bakoitzak aurkeztutako iradokinuari buruzko txostenaren informazioa emango da, eta aukera emango zaie txostenaren kopia lortzeko, alde zurretik eskatuta, eta jakinaraziko zaie Udalak Plana behin behineko onesten duenean horren aurkako alegazioak aurkeztu ahalko dituztela legeak ezarritako epean.

12.- Arrobiko erosketa. Herrilurretako Departamenduaren Txostena.

Alkateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuak Herrilurretako Departamenduak txostena prestatu duela Arrobi finkaren jabetzari buruz, Udal honek eskatuta, Arrobi finkaren erosketaren aferarekin aurrera egiteko, eta txostenaren edukiaren gaineko informazioa eman du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Udalak erabaki du aho batez gai zerrendatik kanpo dagoen gai hau premiamendu bidez tratatzea:

LANGABETUEN PLANA

Udalak erabaki du aho batez alkateari, Iñaki Cilveti Lecumberri j., ahalmena ematea 2006. Urtean egingo diren zenbait lan kontratatuko diren langabetuek egitea.

Udalak erabaki du aho batez gai zerrendatik kanpo dagoen gai hau premiamendu bidez tratatzea:

GARAITZEKO-ASI KULTUR ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEA

Alkateak jakinarazi du Garaitzeko-Asi Elkartearekin harremanetan jarri dela, Auritzen lan handia egiten baitu kultur arloan, Elkarte horrek eta Udalak antolatzen dituzten jarduerak koordinatzeko hitzarmen baten bidez.

Udalak erabaki du aho batez alkateari ahalmena ematea Garaitzeko-Asi Elkartearekin lankidetzaren hitzarmena sinatzeko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, bilkurari bukaera eman zaio, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

